

Xabier Caño

Aclimako Lehendakaria
Presidente Aclima

Koronabirusaren pandemiak mundu mailako osasun- eta ekonomia-krisi bat eragin zuen joan den urtean, baina Europak garapen jasangarriarekin eta ekonomia zirkularrarekin duen konpromisoa benetan berretsi den urtea ere izan da. Hala, Green Dealeko ekintza eta politiketan sakonduz ari da suspertzen ekonomia.

Itun Berdea eta hura osatzen duten arauek, laster aterako den Europako Lege Klimatikoak, 2030erako Biodibertsitate Estrategiak eta Industria Estrategiak osatzen dute, besteak beste, Europaren etorkizuna. Eta ingurumen-sektorearen oinarriaren gainean eraikiko da etorkizun hori, zeharkakoa delako eta beste sektore ekonomiko batzuekiko erraztailea delako. Hala, trantsizio ekologikoa eta digitala bultzatuko duen tresna izango da.

Euskadik ere norabide horri jarraitzen dio, eta, testuinguru horretan, Basque Green Deal aurkeztu du berriki. Ingurumen-politikak eta politika ekonomikoak sail berean —Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila— elkartzeak eta 2030erako Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia, Klima 2050 Estrategia eta Agenda Euskadi 2030 ekimenak aurrera atera izanak erakusten dute Eusko Jaurlaritzak konpromisoa duela deskarbonizazioarekin, ekonomia zirkularrarekin eta garapen jasangarrirako helburuak betetzearekin.

Testuinguru horretan, Aclima Basque Environment Cluster ekimenak ingurumen-sektorearen izaera estrategikoaren alde egiten du.

Si bien durante el pasado año, la pandemia del coronavirus ha provocado una crisis de salud y económica a nivel global, también ha sido el año en el que el compromiso de Europa por el Desarrollo Sostenible y la Economía Circular ha quedado afirmado definitivamente. De hecho, la vía para la recuperación está siendo la profundización en las acciones y políticas del Green Deal.

Tanto el Pacto Verde como las normas que lo complementan, la próxima Ley Climática Europea, la Estrategia sobre la Biodiversidad para 2030, la Estrategia Industrial, o el Plan de Acción de la Economía Circular, constituyen el futuro de Europa, un futuro en el que el sector medioambiental es la piedra sobre la que va a empezar a construirse debido a su carácter transversal y facilitador con otros sectores económicos y que le permite erigirse como herramienta necesaria para el impulso de la transición ecológica y digital.

Euskadi se mueve también bajo esas directrices, recientemente ha presentado su Basque Green Deal. La unión de las políticas ambientales y económicas en un mismo Área, el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente; y el impulso de la Estrategia de Economía Circular del País Vasco 2030, la Estrategia Klima 2050 y la Agenda Euskadi 2030 dan muestra del compromiso del Gobierno Vasco con la descarbonización, la Economía Circular y la consecución de los objetivos de desarrollo sostenible.

En este contexto, Aclima Basque Environment Cluster defiende el carácter estratégico del sector ambiental.

Olga Martín

Zuzendari Nagusia
Directora general Aclima

Gure sektoreak orain arte ez du izan halako hazteko aukerarik, eta, horrekin batera, Green Deal estrategia alderdi guztietan inplementatu da, zeinean jasangarritasuna funtsezko eta zeharkako ardatz bat izango baita ekoizpen-sektore guztietarako eta gizarte osorako.

Aclimak aukeraz betetako etorkizun bat ikusten du, aurrera atera diren ekimenak kontuan izanda; besteak beste: Next Generation funtsak zabaldu dira (% 37 ingurumen-proiektuetara eta kliman inpaktu positiboa izango duten proiektuetara bideratu behar da); kontsumitzaileek gero eta ingurumen-kontzientziazio handiagoa dute; enpresa-munduak oro har jasangarritasunaren inguruko interesa du, eta, bereziki, ekonomia zirkularraren, klima-aldaketaren eta ingurumen-kalitatearen inguruko interesa; eta ingurumen-inpaktu positiboa duten inbertsioak egiten dira kapital publikoarekin eta pribatuarekin.

Euskadiko BPGaren % 5 dagokio ingurumen-sektoreari gaur egun. Oinarrizko zerbitzu bat izan da COVID-19aren garaian, eta krisialdi honetatik ateratzeko funtsezko tresnatzat jotzen da, Europako Batzordeak proposatu duen gisan Green Dealen bitartez. Gainerako industria-sektoreei trantsizio ekologikoa egiteko balioko dien aldaketa-palanka izango da ingurumen-sektorea.

Europatik datozen eskakizunei jarraituta, zeinak berriki aurkeztu den Basque Green Deal estrategiaren barruan jaso baitira Euskadin, trantsizio ekologikoari ekin behar diogu. Sektore ekonomiko guztien artean ekin behar diogu jasangarritasunerako trantsizio horri, sektore publikoaren eta sektore pribatuaren lankidetzarekin, eta jarrera posibilista izan behar dugu, lehiakortasunean ez eragiteko; finantziazio-tresnak ere erabili beharko ditugu, trantsizio justu eta inklusibo bat lortzeko, EAEko ingurumen-sektorearen ezagutzan eta esperientzian bermatuta.

Nos encontramos frente a un horizonte de oportunidad de crecimiento sin precedentes para nuestro sector, ligado a la implementación de la estratégica Green Deal en todas sus vertientes, donde la sostenibilidad será un eje clave y transversal para todos los sectores productivos y la sociedad en su conjunto.

La puesta en marcha de estrategias europeas, el despliegue de los fondos Next Generation, de los cuales, el 37% debe ir destinado a proyectos ambientales y de impacto climático positivo, la creciente concienciación ambiental de los consumidores, el interés empresarial por la sostenibilidad en general, y particularmente por la economía circular, el cambio climático, y la calidad ambiental y, el movimiento de capital público y privado hacia inversiones con impacto ambiental positivo, entre otras cuestiones, hacen que desde Aclima veamos un futuro lleno de oportunidades.

Actualmente el sector medioambiental representa el 5% del PIB en Euskadi. Ha sido un servicio esencial durante el COVID, y se presenta como la herramienta clave para la salida a esta crisis, tal y como ha planteado la Comisión Europea a través del Green Deal. El sector Medioambiental va a suponer la palanca de cambio para que el resto de los sectores industriales puedan realizar su transición ecológica.

Siguiendo los requerimientos que vienen de Europa y que, en Euskadi, se han recogido dentro de la recientemente presentada estrategia Basque Green Deal, tenemos que promover la transición ecológica. Esta transición hacia la sostenibilidad la tenemos que afrontar conjuntamente entre todos los sectores económicos, desde la colaboración público-privada, de manera posibilista para no afectar a la competitividad, incluyendo herramientas de financiación que permitan una transición justa e inclusiva y, apoyándonos en el conocimiento y la experiencia del sector medioambiental vasco.

Sektoreko datuak

Datos del sector

Aclimako enpresek

2.101 M€

fakturatu zituzten ingurumen-alderdietan 2020an.

Las empresas de Aclima facturaron en Euskadi **2.101 M€** en 2020 en ámbitos ambientales.

Euskadiko BPGaren %5 inguru dagokio ingurumen-sektoreari

El sector ambiental vasco representa alrededor del 5% del PIB de Euskadi.

Aclimako bazkide diren enpresetan

7.856 profesional

ari dira lanean. Sektorea erresilientea izan da enpleguari dagokionez; izan ere, 2019ko mailari eutsi zaio, eta 2021ean hobekuntza txiki bat espero da.

Las empresas vascas asociadas a Aclima cuentan con **7.856 profesionales. El sector ha mostrado resiliencia en términos de empleo durante la pandemia, manteniendo el nivel de 2019 y con perspectivas de un ligero crecimiento para 2021.**

Oro har, 2020a jarduera positiboa izan da sektoreak berrikuntzaren alde egiten duen apustuan, ingurumen-prozesu, -produktu eta -zerbitzuetarako 4.0 teknologiak sustatzen dituen Basque Enviromnet 4.0 lerroa sendotuz.

En términos generales, 2020 ha sido un ejercicio positivo en la apuesta del sector por la innovación, afianzándose la línea Basque Environment 4.0, que promueve las tecnologías 4.0 para procesos, productos y servicios ambientales.

Nazioarteko jarduerak pandemiaren eragin nabarmena izan du 2020ko ekitaldi osoan, baina susperraldi apal bat ikusi da azken hiru hilabeteetan .

La actividad internacional se ha visto afectada de manera significativa por la pandemia durante todo el ejercicio de 2020, se ha vislumbrado una ligera recuperación en los últimos tres meses.

Aclimaren datu ekonomikoak

Datos económicos de Aclima



BALIABIDEEN JATORRIA
ORIGEN DE LOS RECURSOS

Bazkideen kuotak Cuotas de Socios		20%
Klusterra - Eusko Jaurlaritza hitzarmena Convenio Cluster-Gobierno Vasco		20%
Europar diru-laguntzak Subvenciones europeas		3%
Diru-laguntzak - beste euskal erakundeak Subvenciones otras Instituciones Vascas		13%
Erakundeen kolaborazioen errenta Ingresos colaboraciones entidades		14%
Prestazioak eta zerbitzuak Prestaciones servicios		30%
Guztira /Total		**100%**

Adierazleak

Indicadores

BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOA AREAGOTZEA
INCREMENTAR INNOVACIÓN TECNOLÓGICA

25 Berrikuntza-proiektutan hartzen du parte enpresa bazkideren batek
Proyectos de innovación en los que participe alguna empresa socia

27 Bazkidek hartzen dute parte berrikuntza-proiektuetan
Socios que participan en proyectos de innovación

ENPRESA-BERRIKUNTZA BULTZATZEA
PROPICIAR INNOVACIÓN EMPRESARIAL

47 Ekimen bazkideen eta beste sektore batzuen arteko lankidetzarekin
Iniciativas en colaboración entre socios y con otros sectores

31 Socios que participan en iniciativas en colaboración con otros socios y con otros sectores
Bazkidek hartzen dute parte ekimenen batean, beste bazkide batzuekin eta beste sektore batzuekin lankidetzan

LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA SUSTATZEA
IMPULSAR COLABORACIÓN PÚBLICO-PRIVADA

47 Ekimen edo proiektu sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzain
Iniciativas o proyectos de colaboración público-privada

NAZIOARTEKOTZEA SUSTATZEA
PROMOVER LA INTERNACIONALIZACIÓN

10 Ekimen egiten ari dira nazioartekotzea bultzatzeko
Iniciativas que se desarrollan para promover la internacionalización

17 Enpresa ari dira parte hartzen nazioartekotzeko ekimenetan
Empresas socias que participan en iniciativas de internacionalización

ACLIMA ERREFERENTE GISA INDARTZEA
REFORZAR ACLIMA COMO REFERENTE

58 Agerpen komunikabideetan
Impactos en medios

BAZKIDEEN ASEBETETZE-MAILA HANDITZEA
MEJORAR LA SATISFACCIÓN DE LOS SOCIOS

100 Bazkidek hartzen dute parte Aclimaren jardueraren batean
Socios participantes en alguna actividad de Aclima

2019-2022

Aldirako plan estrategikoaren berrazterketa

Revisión plan estratégico

Bazkideen % 87k adierazi dute Aclimaren jarduerak eragin positiboa duela ingurumen-sektorearen lehiakortasunean

El 87% de los socios señala que la actividad de Aclima tiene efecto positivo en la competitividad del sector ambiental

Bazkideen % 70ek uste dute Aclimaren jarduerak hobetu egoten duela beren enpresak erronka berriekiko duen posizioa

El 70% de los socios considera que la actividad de Aclima mejora la posición de su empresa ante los nuevos retos

Bazkideen % 74k uste dute Aclimaren jarduerak eragin positiboa duela beren enpresaren lehiakortasunean

El 74% de los socios considera que la actividad de Aclima tiene efecto positivo en la competitividad de su empresa

Bazkideen % 78k adierazten dute Aclimaren parte izatea baliatzen dutela beren irudia saltzeko, proiektuak lortzeko, etab.

El 78% de los socios utiliza la pertenencia a Aclima para vender su imagen, conseguir proyectos, etc…

Bazkideen % 87k diote Aclimak beste sektore batzuekin duen harremana egokia dela

El 87% de los socios considera adecuada la relación de Aclima con otros sectores

Bazkideen % 83ren ustez, egokiak dira Aclimak bultzatzen dituen nazioartekotze-ekimenak

El 83% de los socios considera adecuadas las actividades de internacionalización incentivadas por Aclima

Bazkideen % 83k uste dute Aclimaren jarduera baliagarria dela sinergiak lortzeko sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzan

El 83% de los socios considera que la actividad de Aclima está sirviendo para encontrar sinergias en colaboración público-privada

Datos de encuesta realizada a los socios con un 40% de respuesta (marzo 2021)

Bazkideei egindako inkestaren emaitzak; inkestatuen % 40k erantzun zuten (2021eko martxoa)